

Josu Waliño

# Bederatzi ateak



Azala eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

**Argitaratzea:**

Editorial Txalaparta E.M.L.  
Navaz y Vides 1-2  
78. Posta-kutxa  
31300 Tafalla  
NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Faxa 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com

**Lehenengo edizioa**

Tafalla, 2008ko abuztua

**Copyright**

© Josu Waliñok  
© Txalapartak

**Maketazioa**

Monti

**Inprimaketa**

RGM

Aita Larramendi, 4  
48012 Bilbo

**ISBN**

978-84-8136-525-2

**Lege gordailua**

BI-2.455-08



*Nire gurasoei*



*Ate guztiak  
zabalik daude*



—NAHI AL DUZUE DEMONIO bat duen eliza bat bisitatu?

Galdera Xosék egin zuen, beti bezala. Xoséren galderak horrelakoak izan ohi ziren, gutxien espero zenuen ateraldiarekin etorriko zitzaizun edozein unetan.

—Demonioak baino, nahiago genituzke diablesa batzuk –jarraitu nion txantxa, eta autoan gindoa zen beste hiru lagunok barre algaraka hasi ginen. Baina Xosék ez zuen barrerik egin, eta bolanteari helduta, errepidearen bihurgune itxiek ezkututzen ziguten gau beltza arakatzen jarraitu zuen.

—Galizian zaudete –gogorarazi zigun serio–, eta hemengo parajeetan aspaldian ahaztuta beharko luketen gauza asko ditugu oraindik.

---

IRAKURLEARI OHARRA: Ipuin honek *Bederatzi atek* izenarekin EHUko Fantasiatzko Ipuinen lehiaketako lehen saria irabazi zuen 2007an.

Guk barrez jarraitzen genuen. Xosé serio demonio zegoen, eta horrek giroa alaitzen laguntzen zuen gure ustez. Besteok txantxa jarraitzen genion, beraz.

—Arrazoa! –bota zion gutako batek—. Horrexegatik etorri gatzaizkik bisitan, horiek guztiak ikusteko!

Eta barre egin genuen autoaren gozotasunean, baina oraingoan ere kanpotik etorritako hiru lagunak baino ez ginen barrez aritu.

Domu Santu bezperako gaua zen. Bigarren eguna genuen Galizian, azaroko zubi hura aprobetxatuz Xosé gure ikaskide ohia bisitatzeko aitzakian joanak baikinen autoko beste hiru bidaiariak. Bilbon egindako ikasketek iraun zuten urteetan pisukide izan ginen laurok, eta urte luzez elkarrekin bizi izanak ematen duen konfiantza estuaz ezagutzen genuen elkar.

Gertatu ohi den moduan, ordea, ikasketak amaitzearekin batera banandu eta elkarrengandik urrundu egin ginen. Denborak banatu bagintuen ere, harremanetan jarraitzen genuen era batera edo bestera, eta aspaldiko partez berriz elkartzea erabaki genuen eta egun gutxi batzuk Galizian elkarrekin igarotzea. Plan polita egin genuen: Xosé gure pisukide ohiari bisitan joatea. Beste hirurok euskaldunak ginela kontuan izanda, turismoa aitzakia hartuta Galiziara joan ginen garai bateko parrandak gogoratzeko asmoz.

Erabaki hori hartu genuenean, ez gintuen bereziki harritu Xoséren etxea baso baten amaieran kokatutako baserri zahar bat zela jakiteak. Aski eza gutzen baikenuen Xosé, baita haren gorabehera psikologikoak ere. Elkarrekin pisuan izan ginen artean hainbat fase ezagutu genizkion: sagarrak besterik jaten ez zituen hilabeteak; Tai-chi, yoga, fengshui eta bestelakoak gau eta egun praktikatzeko zituenekoa; edo animista bezala bere burua definitu zuenekoa. Boladaka mugitu ohi zen Xoséren burua, eta gu horretara ohituak ginen.

Oraingoan, A Coruñan parranda egin ostean baserrirako bidea hartua genuen. Bide ilunean barrena basoa zeharkatzen ari ginela, ez ginen lagunaren aldarre serioaz jabetu. Agian, autoaren beraren iluntasunak ez zigun ohartzen utzi, edo agian parrandaren amaierako umore bizia izan zen, baina gu barre gogotik ari ginen egiten. Hiru besterik ez ginen, ordea, autoan barrez ari ginenak. Laugarrena serio demonio zegoen, autoa baso ilunean gidatzen zuen bitartean.

—Entzun al duzue inoiz *Santa Compañari* buruz hitz egiten? —galdetu zigun orduan, eta guk denok barrez erantzun genion, baietz, Euskal Herri-raino iritsi zirela Galiziako ipuinak. Baina Xosék berearekin jarraitu zuen.

—Ziur uste duzuela Delibesek asmatutakoa dela, edo Alfredo Landaren filmeko ipuin bat. Baina nik behin ikusi nuen, baso honetan bertan.

Eta hori esanda inguratzen gintuzten zuhaitzen forma ilunak seinlatu zituen buruko keinu batez.

Barre-algarak isiltzen joan ginen pixkanaka. Istorio baten hasiera sumatzen genuen, eta Xosék bazuen horretan ere ukitu berezia. Ondo baino hobeto genekien hori eta, beraz, isildu ginen istorio interesgarri bat entzuteko gogoz.

—Baina hori ez da kontatu nahi dizuedana —jarraitu zuen hark, autoan bat-batean sortutako isiltasunaz ohartu ez balitz bezala—. *Santa Compañã* Galiziako tradizio ezaguna da, baina ez duzue ahaztu behar Galizia herrialde zeltikoa dela, magikoa, eta magia hori gure sustraietan erroturik dagoela: *Santa Compañã* eta *lobishomeak* ezagunak dira jende gehienarentzat, baina hain ezagunak ez diren mitoak ere baditugu: *mouroak* esaterako gure mitologiako izaki magikoak dira, edo *meigak*, zuek sorgin bezala ezagutzen dituzuenak —eta guri luzea egin ziztaigun isilune baten ondoren amaitu zuen esaldia—. Infernuko bederatzi ateak ere baditugu.

Gu barrez hasi ginen berriz, baina disimulatua go. Parranda-amaieran adarra jo nahian zebilen Xosé, hori garbi zegoen, eta gu jokoari jarraitzeko prest geunden, baina gure erara: barrez.

Serio jarraitu zuen hark, ordea, gauaren beltzean Galiziako basoak zeharkatzen zituen errepideari Volkswagen zaharrarekin bidea jaten zion bitartean.

—Barre egin nahi baduzue, egin –bota zigun gu-re barre txikiez ohartuta–, baina orain goazen to-kian Infernuko ate horietako bat dago. Bederatzi di-ra guztira, eta guztiak ere Galizian barrena daude sakabanaturik, han eta hemen kokatuta. Nik duela gutxi jakin nuen hori, gaurkoa bezalako gau ilun ba-tean, Domu Santu bezperako gauetz etxera nindoa-la. Bide honetatik nindoan autoarekin, eta bat-ba-tean zerbait sentitu nuen deika, nire nahia gidatzen zuen indar batek harrapatu ninduen. Nire boron-datea mendean hartu eta ezagutzen ez nuen bide-gurutze batean okertzera behartu ninduen. Jakin ba-nekien okerreko bidetik nindoala, basoan gehiago barneratzen ari nintzela, baina ez nintzen gauza bes-tela jokatzeko. Bidezidorrari jarraitu nion, amaitu zen arte, eta orduan, metro batzuk aurrerago ikusi nuen: eliza beltza.

—Eliza beltza? –galdetu nuen. Isiltasuna nagu-situ zen autoan, Xosék, beti egin ohi zuen moduan, bere istorioan gatibu harrapatu gintuelako. Eta egia esan, inguruak ere laguntzen zuen istorioa girotzen: ilargirik gabeko gau beltzean baso ilun bat zehar-katzen ari ginen Domu Santu bezperan, eta orain, gainera, behe-lainoa autoa inguratzen hasia zen.

—Eliza beltza –errepikatu zuen hark–. Nik ba-taiatu nuen horrela, beltza zelako haren irudia, eta beltza hark sortzen zidan zirrara. Argi triste bat ate-ratzen zen baselizaren leihoetatik, eta bere ingu-

ruak, gauaren beltzak eta baso itxiak ematen zioten itxurak ezin zuen beldurgarriagoa izan.

Hori esanda guri begira geratu zen Xosé une batez. Berehala jarraitu zion istorioari, ordea, gu hiruror bultzada isilari jarraiki.

—Zerbaitek deitzen ninduen bertara –jarraitu zuen–, ezkutuko indar batek elizara joateko esaten zidan, nire borondatearen aurka. Ez dakit zer geratu zen orduan. Ez dakit eliza hura ikusteak sortu zidan bihotzaldia izan zen, baina nire barnean dararamadan gerrari zeltikoa atera nuen orduan, eta aurre egin nion ezkutuko dei hari. Azken unean, autoa hartu, eta handik ihes egin nuen ziztu bizian, baina deika eta tiraka sentitzen nuen atzean utzitako hura.

Hori esaten amaitu zuenean, isiltasun ilun hartan ohartu nintzen lehen ikusi ez genuen bidegurutze batera iritsi ginela, eta autoa okertuz are ilunagoa zirudien bidexka batetik barneratu gintuela Xosék.

—Hori al zen bidegurutzea? –galdetu nion autoaren isiltasuna hautsiz.

Irribarre batez erantzun zidan, eta berehala ohartu nintzen autoan geunden beste hiru lagunoi mozkorra di-da batean pasa zitzaigula, eta leihoetatik begira jarri ginela baseliza ilun bat ikusteko beldurrez.

—Infernura daraman ate bat da –bota zuen Xosék.

—Zergatik diozu hori? –galdetu nion ikaratzan hasita.

—Baselizaren istorioa ikertu nuelako hura gertatu ondoren —erantzun zidan—. Eta beldurrezko filmetako istorio batekin egin nuen topo: desagertzeak, hilketak, arima misteriotsuak... era guztietako istorio ilunak kontatzen dira eliza horretaz. Baita bertan demonio bat bizi dela ere.

—Eta zuk sinesten duzu hori guztia? —galdetu nion berriz.

—Kondaira asko ditugu Galizian —izan zen haren erantzuna—, mamuak eta *Santa Compañía*, baita zelten garaitik datozen istorioak ere. Infernuko bederatzi ateak ere baditugu, eta ziur nago eliza hori ate horietako bat dela.

Une horretan hasi zen euria.

Edo jarraitu.

Galizian euria ez baita hasten, etenaldiak dituen egoera infinitu bat izango balitz bezala jokatu ohi du. Han egon ginen bitartean bidaide izandako zirimiri finak inguratzen gintuen orduan ere, setiatzen gintuen lanbro umelarekin batera azaroko lehen gau hura are goibelagoa bihurtuz.



Isilik egin genituen kilometro gutxi batzuk, poliki bidea zabalduz, bideak bere metro bakoitza basoa-ekin izandako etengabeko borroka batean irabazia zuela zirudielako. Zuhaitzak bide-bazterrean baino,

bideak jarraitzen zien zuhaitzek utzitako tarte estuei. Egoera horri ilargirik gabeko gauaren iluna lotuta arnasa hartzeko tokirik ez genuela sentitzen genuen.

Autoan ez genuen hitzik egiten. Xoséren istorioak ikaratuta utzi gintuen, eta giroan suma zitekeen gu guztion beldurra.

Autoa geratu egin zen.

Bat-batean, gutxien espero genuenean. Inoiz autorik geldituko ez genukeen inguruan gelditu egin zen gure autoa.

Zuhaitz arteko zabalgunek batean geunden, oraindik ere behe-lainoak setiatuta, eta zirimiriak jazarrita, gudaren erdian erortzear dagoen dorretxea bezala sentitzen nuen autoaren segurtasun tristea.

Xoséri isileko galdera luzatu nion begiradaz.

—Hor dago —erantzun zidan, faroen argitasuna hiltzen zen puntu beltzean begiak galduta zituelarik.

Eta han zegoen, bai.

Forma beltz bat sumatzen zen argitasunaren mugatik harantzago, argitik ihesi zebilen animalia baten moduan.

Behe-lainoak ezartzen zigun setioa gero eta estuagoa zen, eta gandu horren itzalpean dardarizo hori batzuen imintzioa sumatu nuen urrutian. Begiak estutu eta forma beltz hartatik ihes zihoazen argi izpiak zirela ohartu nintzen. Lainoaren itxitura zeharkatuz, kolore zikin horixka batekoa zirudien

argia iristen zen lotsati autoa gelditu genuen ingururaino.

Hango forma beltzari hobeto erreparatzen saiatu nintzen orduan, eta eliza bat izan zitekeenaren itzala antzeman nuen. Orduan ulertu nuen, argi horixka hura elizako leihotik ihes egiten zuen kandelen argi hila baino ez zela, eliza haren barrua argitzea baino gauaren beltzean hiltzea nahiago zuen argiaren horia.

Atzeko aulkian isilik sumatzen nituen beste bi lagunei luzatu nien begirada, eta urduri igarri nituen, aulkian poliki mugitzen, ondoren zer etorriko ote zen elkarri isilpean galdetzen. Buruarekin keinu bat egin nien eta, erantzun moduan, Aitor izan zen guztiok buruan genuen galderaz autoaren barruko isiltasuna eteten lehena.

—Eta orain zer?—galdetu zuen—. Ez duzu pentsatuko euri honekin basoan buelta bat ematera joango garenik, ezta?

Ilunpean ozta-ozta antzeman zitekeen elizari begirik kendu gabe, gidariaren atea zabaldu eta gauaren hotzera atera zen Xosé. Aitorren galdera erantzunda ikusi nuen berehala; euri, lanbro eta baso ilunari erreparorik egin gabe baselizarantz zeraman bidexkan abiatu baitzen Xosé gu guztiok autoan aho zabalik utzita.

Gu ez ginen autotik mugitu. Begiekin jarraitu genuen Xoséren ibilbidea, gauaren ilunak irentsi zuen arte. Orduan ohartu ginen non geunden, eta

zertan ari ginen, eta denok aldi berean biratuz bata besteari galdezka hasi ginen.

—Nora joan da? —izan zen Aitorren galdera, baina guztiok ezagutzen genuen horren erantzuna.

—Broma bat izateko, pasatzen ari da, ezta? —Unai zen oraingoan. Autoan sartu ginenetik lehen aldiz ireki zuen ahoa, eta serio zegoen. Guztiok geunden serio, giroak gau hartako festa seriotasun hotz bihurtua zuelako.

—Ni bere bila noa —bota nien besteei, eta esandakoaz damutu aurretik autotik irten nintzen.

Lagunak nire atzetik atera ziren autotik. Bazirudien norbaitek hori esan artean zain geundela hirurok martxan jartzeko edo, besterik gabe, inor ez zela ausartu autoan geratzera, Galiziako baso baten erdian Domu Santu bezperako gau ilunean.

Basoaren beltzean barneratu ginen hirurok, eta berehala sumatu genuen elizaren presentzia euri itsaskorraren eta lanbro hotzaren gainetik.

Aurrean zegoen.

Ikusi baino gehiago sumatu egiten genuen.

Autoa utzi genuen tokitik jarraituz berrehun metrora nabari ziren baselizako leihoetako argiak, eta harantz bideratu genituen gure pauso zalantzatiak.

Poliki abiatu ginen.

Azaroaren lehen gau ilunean, behe-lainoak ez zigun elkarrengandik urruntzea gomendatzen, eta guk kasu egin genion. Ia-ia elkarri eskua emanda

hasi ginen elizarantz joaten. Inork ez zuen hitzik egin, baina nabari nuen nire lagunen urduritasuna neurearen pare zegoela.

Galziako etengabeko euriak arropak mela-mela eginda zizkigun berehala, ilea buruan itsatsi, gorputzak umeldu, eta gauaren hotzaren laguntzaz hotzikarak eta dardarizoak eragin gure gorputzetan. Dardarizorik handienak gure imajinazioak eragiten zizkigun, ordea.

Behe-lainoak ez zigun utzi zapaltzen genuen lurrea ikusten, eta hor, zuhaitzetako hosto eta adar txikiz jositako bidexkak gure oin azpian egiten zuen kriski-kraska, bidean pilatutako hezur txikiak ziren gure imajinazio hegalariaientzat.

Eta kriski-kraska hori zen elizarako bidean entzuten genuen soinu bakarra, zirimiru umelak haize izpirik baimenduko ez balu bezala zuhaitzak mugimendurik gabeko itzal ilunak baino ez zirelako. Elkarri begirada urduriak bota genizkion, baina ez ginen ausartu ahoa zabaltzera.

Autoaren argiak amaitzen ziren puntura iritsi ginenean, orduantxe ohartu ginen linterna autoan utzi genuela. Jarraitzea erabaki genuen, seguruenik inor ez zelako ausartzen autora bakarrik bueltatzera. Eta elizako leihoetatik ihes egiten zuen argi urria gidari hartuta aurrera egin genuen. Txiskero bat ere bazuen Aitorrek, baina ez dut uste hango zirimiru eta lanbroarekin piztea lortuko genuenik. Beraz, ilunta-

sunak jandako bide batean barrena egin genituen elizarako azken metroak, bidea estaltzen zuten ezkutuko adar txikien kriski-kraska lagun hartuta.

Horrela iritsi ginen eliz atarira. Hirurok dardarka, arrazoi bat edo beste tarteko. Batak bestearen arnasa kolkoan sumatzeko moduko gertutasunez paratu ginen elizaren sarrera zirudien atari aurrean, gauaren ilunean are goibelago ikusten zen arkupe baten azpian, hurrengo pausoa nork emango zain.

—Xoséren bila etorri gara, ezta? —esan nuen, nire ahotsari ausardia itxura eman nahian. Eta hori esanda eskua luzatuz elizako atea bultzatu nuen.

Oraindik iruditzen zait, leihoetatik argia irteten ikusi arren, gutako inork ez zuela espero ate hura zabalduko zenik.

Baina bultza orduko zabaldu zen atea.

Isilik zabaldu zen barrurantz, beldurrezko filmetan entzun ohi den kirrinkarik egin gabe. Eta guk, gauaren beltzetik elizaren ilunera bidea zabaltzen zigun ataria zeharkatu genuen, bitan pentsatu gabe.

Ez genuen denbora askorik behar izan gure bista goibeltasun hartara ohitzeko, kaleko gau-argitik baikentozen. Baina eliza barrena kandela gutxi batzuen argi hilaz argituta bazegoen ere, basoko iluntasuna baino beltzagoa antzematen zen. Kandelen argi zalantzatiak bustitzen ez zituen zokoak hobi beltzak ziruditen, eta hobi horiek elizaren osotasuna betetzen zuten.

—Xosé! —oihu egin zuen Aitorrek—. Ze kristo habil?

Aitorren oihuak atera ninduen nire barrunbetik, eta orduan ohartu nintzen Xoséren presentziaz. Korridorearen amaieran zegoen, aldarearen aurrean belauniko, gora begira. Eta gure deiei egiten zien kasu gutxiari erreparatuta, trantze moduko egoera batean zegoela esango nuke.

Begiradarekin jarraitu nuen haren begien norabidea, eta han, aldarearen aurreko gurutzean iltzatuta ikustea espero ez nuen irudi batekin egin nuen topo.

Demonio bat zegoen.

Gurutzean iltzatuta Jesukristoren irudia egon beharrean, demonio-itxurako izaki bat zegoen eliza hartan. Besoak gurutzean zabal zituen eta burua makur, behera begira, Xoséri begira egongo balitz bezala.

Ez nuen irudia behar bezala ikusteko astirik izan, baina ez zen ohiko buztan-luze, adar zorrotz eta azal gorriko demonio bat han zegoena. Itxura zakarreko izakia zela esango nuke, irudi gaiztoa, baina ezin gehiagorik esan, une batez baino ez bainuen begien aurrean izan, baina nahikoa izan zen deabru baten irudia zelaz ohartzeko.

Lagunei hori adierazteko biratu nintzenean, gure atzean zabalik utzi genuen atetik haize bolada zakarra sartu zen, zirimiri lasaia ekaitz bihurtu balitz bezala. Infernuko ekaitza, pentsatu nuen hura su-

matzean. Haize bortitzak kandelen tristura herioztara eramán zuen kolpe bakarraz. Elizako atea danbateko batez itxi zen gure atzean. Bat-batean, ilunpean gelditu zen elizan kolpera biratu nintzen berriz, eta aldarearen iluntasunean, demonioaren burua zegoen lekuan bi puntu gorri ikusi nituen une batez. Guri begira zeuden bi begi gorri ziruditen. Begiak kolpera itxi ziren, bat-batean desagertu eta gehiago ez bainituen ikusi.

Lagunak oihuka hasi ziren.

—Non zaudete? Ez al du inork argirik?

—Zer gertatu da?

Eta orduan kolpeak hasi ziren.

Aldaretik zetozen. Elizaren belztasuna zeharkatu eta gure nerbioak erotzen zituzten kolpe gogorak, taupada izugarrien modukoak, norbait zerbait hautsi nahian ariko balitz bezala.

Eta kolpeei jarraiki hasi ziren oihuak.

Beldur-oihuak ziren.

Etsipen-oihuak.

Xoséren ahotik ihes egindako oihuak.

Aitor izan zen egoera hartan erreakzionatu zuen bakarra. Ni, iluntasun hartan kokatu ezinik nengoen, oihuen jatorria aurkitu nahian. Unai, berriz, zorabiatu eta lurrera ziplo erori zelakoan nago.

Aitorrek patrikako txiskeroa atera eta elizaren ilunari aurre egin zion argi txiki bat piztuz. Eta bat-batean isildu ziren kolpeak eta oihuak.

—Lagundu! —esan zidan Aitorrek, eskutik hel-  
du eta iluntasunean une batzuk lehenago kandelen  
argia zegoen tokirantz eramaten ninduelarik.

Han topatutako kandela tristeak piztu genituen  
eta haiek esku banatan hartuta aldarera abiatu ginen,  
dardarka, elkarrengandik aldentzeko beldur, poliki.

Aldare aurrera iritsi ginenean ez genuen Xosé-  
ren arrastorik topatu, eta pixkanaka, eskutan geni-  
tuen kandelen laguntzaz elizako argitasun urria be-  
rreskuratzeari ekin genion gure lagunaren izena  
oihukatzen genuen bitartean.

—Xosé!!!

Baina Xosé ez zen ageri.

Unai korridoreko lurretik jaso genuen, eta bere  
onera bueltatu zenean eliza txikia miatu genuen hi-  
rurok berriz ere Xoséren bila, baina ez zegoen ha-  
ren arrastorik. Ez genuen aurkitu, gainera, elizan ez-  
kutaleku edo irtenbiderik lehendik ezagutzen  
genituenez gain, eta horiek itxita zeuden.

Xosé desagertu egin zen.



Autoa hartuta poliziaren bila jaitsi ginenean, ez ge-  
nekien zer pentsatu. Izututa geunden, kolkotik oi-  
netaraino. Xoséren brometako bat izateko ere gehie-  
gizkoa zirudien, baina ez genuen gertatutakoa  
argitzeko azalpen logikorik.

Istorio osoa kontatu genion Poliziari. Alegia, lagun bat ikustera joan ginela, eta hark demonio bat zuen eliza ikustera eramán gintuenean bertan desagertu zela. Gehiago ez zela agertu, eta haren egoerak kezkatzen gintuela.

Gaueko txandako poliziek, errutinazko galdera batzuk besterik ez zizkiguten egin. Garbi erakutsi ziguten Domu Santu bezperan parrandan aritutako gazte batzuen txorakeriekin denbora galtzeko asmorik ez zutela. Demonio bat zuen elizarik ez zuten ezagutzen. Xosé hurrengo egunean agertuko zela esan ziguten, neska gazteren baten ondoan eta biharamun ederrarekin.

Ez dakit gure egoskorkeria izan ote zen, edo gorputzean sartuta genuen beldurra transmititzea lortu genielako, baina azkenean polizietako batek bere bulegoaren gozotasuna utzi, linterna handi bat hartu eta elizaraino laguntzea erabaki zuen.

Aurreko aldian utzitako toki berean utzi genuen autoa oraingoan ere, eta hostoz jositako bidea zeharkatuz iritsi ginen elizara. Gutako inor ez zen ausartu hezur txikién kontua aipatzera, are gutxiago poliziaren linterna indartsuak nabarmen erakusten zituen hosto eta adarrak ikusita, baina guztion begietan sumatu nuen lasaitasun keinu bat eliz atarian bidea amaitu zenean.

Elizara sartu ginen.

Poliziak bere linternaz arakatu zuen elizaren iluntasuna, hobi beltz guztiak banan-banan miatuz.


Baina han ez zegoen inor.

—Demonio bat ikustera etorri zinetela esan didazue lehen –bota zigun poliziak–. Non da, bada, demonio hori?

—Han ikusi nuen nik –adierazi nion aldare gaineko gurutzea seinalatuz.

Poliziak bere linternaz aldareko gurutzea argitu zuenean aurpegia aldatu zitzaidan.

Hutsik zegoen.



Hiru egun gehiago eman genituen Galizian, Xoséren arrastoari jarraitu nahian. Poliziak lehen gauaren tesiari eutsi zion eta, gure parrandaren gehiegikeria aitzaki, kasua itxi zuen; gure kezka eta zalantzak karpeta triste batean gordeta utziz.

Urte batzuk igaro dira harrez geroztik, eta ez nik ez beste lagunek ez dugu Xoséren berririk izan. Baina urtero, Domu Santu bezperan, nahigabe batek han gertatutakoa gogorarazten dit, eta Xosé, guk zeharkatu nahi ez genukeen ate baten bestaldean dagoela sentitzen dut nire barnean.

Infernuko atearen atzean.



MALETA BERRIZ MUGITU ZEN.

Taka-tak!

Jon begira geratu zitzaion. Egongelaren bakardadean, isilik.

Orain geldirik zegoen. Baina ziur zen berriz mugituko zela.

—Amaia! —deitu zuen Jonek—. Hire maleta berriz mugitu dun!

Ur-hotsen artean iritsi zitzaion Amaiaren erantzuna, dutxatik. Beste gela batetik baino, beste dimentsio batetik ari balitzaio bezala.

—Maleta bakean uzteko esan diat! Berehala amaitu eta hor nauk!

Maletari begira jarraitu zuen Jonek. Sofan eserita, egongelaren bakardadean.

Ordu erdi eskas zen Amaia etxera itzuli zela. Bere tesiaren ikerketa-lanetan egin beharreko azken

bidaia izan behar zuena amaitu eta etxera itzuli zen arratsalde hartan. Joni muxu bat eman, eta maleta egongelaren erdian utzi zuen, bidaiaren hautsak gainetik kentzeko lehen ahaleaginean.

—Zer moduz joan zain? —galdetu zion Jonek ezpainak banandu zituztenean.

—Amaitu diat! —oihu egin zuen Amaiak irribarretsu, eta bere begiek distira berezi bat transmititu zioten Joni. Neska alaia zen Amaia; dinamikoa, egi ten zuen edozertan bere indar guztiak jartzen zituena. Jonen ustez, doktore-tesirako egin beharreko ikerketa-lanetan gaixotzerainoko ahalegina egin zuen. Baina bere lana zen, eta hark gehien maite zuen gaia, gainera. Ez zen bera izango, beraz, tartean sartuko zena, ez horixe!

—Bukatu diat! —errepikatu zion Amaiak irribarretsu—. Nire tesirako behar dudan material guztia bildu diat, eta... guztiak harrituta utziko dituen zerbait aurkitu diat. Azken froga zaukaat, nire tesia sustengatuko duen benetako froga aurkitu diat!

—Zer froga? —galdetu zion Jonek.

—Gero erakutsiko diat —erantzun zion Amaiak musu artean—, lehendabizi dutxa bat behar diat. Gero kontatuko.

Orduantxe sofatik jaiki eta komunerako bidea hartu zuen.

Jon irribarretsu gelditu zen egongelan, sofan eserita, pozik. Gogorak izan ziren azken hilabeteak,

Amaia desagertuta ibili zen, gau eta egun tesiaren ikerketan murgilduta. Denbora-tarte horretan ia ez zuten elkarrekin egoteko astirik izan, ez hitz egiteko ezta bizitzeko ere. Liburu artean ematen zuen Amaiak bere denbora guztia, ikasten, ikertzen, eta liburu artean ez zegoenean, Galiziako herrixketan galduta ibiltzen zen, hango tradizio eta ohiturak ikertzen.

Antropologiako doktore-tesia egiten ari zen Amaia, Galiziako mitologia ikertzen, eta lan horrek erabat bereganatua zuen. Orain, ikerketa-lana amaitua zuen, tesiaren idazketa etorriko zen jarraian, baina lan horrek kenduko zizkion hilabeteak errazago eramango zituela uste zuen Jonek. Ez zuen hainbeste bidaiarik eta ikerketarik egin beharko, egindako lanaren bilduma osatu eta ondorioak idaztea baino ez zen izango. Horrek ere, elkarrekin egoteko denbora kenduko zien, baina gutxienez azken txanpa izatearen lasaitasunarekin, eta Amaia etxean egongo zen txanpa horretan, ez Galizian galduta.

Dutxaren zalapartak iristen zitzaizkion komu-netik, eta uraren hotsak egarritu egin zuen Jon.

Jaiki eta sukaldera joan zen, garagardo baten bila. Hura ospatu beharra zegoen!

Gainera, Amaiak esandakoaren arabera, baze-  
goen bestela ere zer ospatua. Azken froga aurkitu  
zuela zioen, bere tesia gailenduko zuen froga. Ho-  
rrek harritzen zuen, berak ez baitzekien Amaiak  
ezer frogatu nahi zuenik. Uste zuen Galiziako mito

eta mamu-ipuinen inguruko ikerketa egiten ari zela, istorio horien erro zeltikoak arakatzen. Askotan hitz egin zion gaiaz, baina ez zuen inoiz arreta berezirik jarri, hildakoen prozesioak, Infernurako atak, *lobishomeak*, *meigak*... horiek guztiak udalekutako beldurrezko ipuinak baino ez zitzaizkion iruditzen berari.

Bazekien azken bidaia hartan, helburu jakin batekin abiatu zela Amaia. Infernuko ate omen ziren horietako baten bila joan zen Galiziara, haren kokapen zehatza aurkitu zuela uste baitzuen. Behin atea aurkituta, hura zabaldu eta atzean topatuko zuenaren inguruan barre egin zuten askotan: Bela Lugosi agertuko ote zitzaion kapa eta guzti?

Burutazio horiekin barrez, salara itzuli zen, zerbeza eskuan.

Orduan mugitu zen maleta lehen aldiz.

Taka-tak!

Ez zen lekuz aldatu. Ez zen lurrean batetik bestera mugitu. Astindu baten moduko zerbait izan zen, balantza bat, barruan gordeta zegoen zerbait alde batera eta bestera mugituko balitz bezala, maleta astinduz.

Taka-tak!

—Amaia! —deitu zuen Jonek.

—Zer? —iritsi zitzaion uraren zalaparta artean.

—Hire maleta mugitu egin dun!

Garagardoa kolkora eraman eta trago luze bat eman zion.

—Ez ukitu maleta! –oihukatu zion Amaiak komunetik. Jonek paranoiko jartzen hasia zela pentsatu zuen bere baitan, edo Amaiaren ahotsean larritasun puntu bat iruditu zitzaiola gutxienez.

—Zergatik? –bota zion bueltan.

—Hik ez ukitu! –erantzun zion Amaiak dutxatik—. Gero azalduko diat.

Jon sofan eseri zen.

Ohiko bere tokian eroso jarri, garagardo freskoa eskuan hartu, eta begirada... salaren erdian zegoen maletatik kendu ezinik.

Betiko beraien maleta zegoen han, plastiko urdinezko maleta. Hegazkinetan jasandako kolpeek ez zuten haustea lortu, baina kanpoaldea markaz jositako zeukan. Bidaia ugaritan eramana zuen Jonek maleta hura atzera eta aurrera. Baina oraingoan begien parean arrotz agertzen zitzaion etxeko salako alfonbraren gainean lasai zegoen maleta hura.

«Tontotzen hasi haiz, Jon!», esan zion bere buruari, eta garagardoari beste kolpe bat egin zion.

Taka-tak!

Dantza egin zuen maletak.

Berriz.

Ezker-eskuin mugitu zen, eta Jon, garagardoa eskuan, zur eta lur geratu zen.

—Amaia! –bota zuen berriz—. Zer kristo ekarri dun maleta horretan? Rias Baixaseko olagarroren bat bizirik, ala?

—Hik ez ukitu! —izan zen erantzuna, eta orain-  
goan ere larritasun-puntua sumatu zuen Jonek ur  
hotsen artean—. Segituan nauk!

Zer kristo ezin zuen ukitu? Maleta bat baino ez  
zen-eta!

—Aizan! Zer dago maleta barruan? Bizirik ba-  
dago, itoko dun hor barruan! —erantzun zion Jonek  
salatik.

—Ez duk itoko! —erantzun zion Amaiak dutxa-  
ko ura moztuz—. Mamu bat duk!

Ahora eramana zuen garagardo zurrutada kon-  
trako eztairitik sartu zitzaion kolpera eta eztula era-  
gin zion.

Mamu bat maletan.

Bere maletan.

Amaia adar-jotzaile galanta zen, umore finekoa,  
baina maletan mamu bat zegoela esatea gehiegiz-  
koa zen.

—Zer ekarri dun baina, Fragaren mamua?

—Serio ari nauk, Jon! —iritsi zen komunetik—.  
Ez ukitu maleta!

Maletari begira jarraitu zuen Jonek, sofaren egu-  
neroko bere txokoak eskaintzen zion lasaitasunari  
gogor helduta. Azken hilabeteotan, Galiziako kon-  
daira, mito, eta mamu-istorio guztiak arakatu zituen  
Amaiak. Bidaia ugari egin zituen Galiziara, bertako  
zaharrekin hitz egin eta haien tradizio eta kondai-  
rak ezagutzeko. Hainbeste mamu, *meiga* eta misti-

zismok ez ote zioten burua ukitu? Edo, agian, ohar-  
tu gabe sagutxoren bat sartu zitzaion maletan, pres-  
tatzen zuen bitartean, eta ez zuen zabaldu nahi? Sa-  
gu galanta behar zuen, ordea, maleta horrela  
mugitzeko!

Sofatik jaiki eta maletara gerturatu zen. Zabal-  
du? Amaiak ez ukitzeko esan zion, eta ez ziren, ba-  
da, iritsi bezain pronto haserretuko, ezta?

Bestalde, ahotsean nabaritu ziona zer zen? La-  
rritasun-puntua? Urduritasuna?

Amaiari berriz galdetzeko ahoa zabaltzerakoan,  
ile-lehorgailuaren zarata iritsi zitzaion komunetik.  
Alferrik ezer galdetzea, Amaiak ez baitzion entzungo.

Libre zeukan eskua luzatu, eta maleta ukitu zuen.  
Salto batean kendu zuen eskua maldizio batekin.  
Maleta izoztuta zegoen.

Hotza ez, erretzeraino izoztuta.

Instintiboki urrundu zen maletatik, atzera egin  
eta sofan berriz eserita garagardoari beste trago lu-  
ze bat eman zion.

Zaporerik gabeko tragoa.

Zer kristo zegoen maletan horren hotza egoteko?

Mamu bat? Bai zera!

Amaiak bere ikerketaz kontatu zizkionak gogo-  
ratzen saiatu zen, baina ez zen erraza. Azken bidai-  
a honetan inoiz baino urduriago abiatu zen. Infer-  
nuko ate bat non aurkitu bazekien. Are gehiago, atea  
nola zabaldu bazekiela zioen. Infernuko ate bat za-

baldu? Bidaia baterako plan bikaina! Turismo-agnetzietan iragartzeko modukoa.

Ile-lehorgailuaren zarata eten zen bat-batean, eta etxearen isiltasunak ikaratu zuen Jon.

Isiltasun hartan, eztanda baten parekoa izan zen maletaren erortzea.

Danba!

—Jon! Zer habil? —oihu egin zion Amaiak komunetik

—Ni ezertan ez! —erantzun zion Jonek sustoa-  
rekin erori zitzaion garagardoa lurretik jasotzen  
zuen bitartean—. Hire mamua dun, maleta bota din.

—Segituan nauk! Hik ez ukitu maleta!

Ukitu? Zertarako ukitu behar zuen berak, ordea,  
bizirik zegoen maleta bat?

Bestalde, lurrean etzanda zegoen maletan itxie-  
rako konbinazioa aurrez aurre gelditua zitzaion, hu-  
ra zabaltzen zuten zenbakidun gurpiltxoak begira  
zituen, erronkan ari balitzaizkio bezala.

Maleta zabaltzeko konbinazioa buruan agertu  
zitzaion; galbiderik gabeko hiru zenbaki: 666.

Deabruaren zenbakia.

Txantxa moduan jarri zuten aspaldi, erraz go-  
goratuko zuten hiru zenbakiko konbinazioa zela-  
koan. Orain ez zion hainbesteko graziaz egiten.

Zenbakiak sartu, eta tontakeria horri amaiera  
emango zion.

Maleta hotza zegoen, ordea, mina ematerainoko hotz.

Eta barruan mamua zegoen. Benetan egongo ote zen?

Paranoiko jartzen hasita zegoen. Amaiak adarra jo nahi zion, eta bera Infernuko ate eta txorakeria guztiak sinesten hasia zen.

Sofatik jaiki eta maleta zutitu zuen.

Izozturik jarraitzen zuen.

Behatzak minez, gurpilak mugitu zituen, poliki. Maleta zabalduko zuten zenbakiak bere tokian jarri zituen bata bestearen atzetik: 6, 6, 6. Eta hirurak kokatuta, behatzak galtzetan igurtzi zituen, zirkulazioa berriz aktibatzeke ahaleginetan.

Taka-tak!

Maletak beste astindu bat egin zuen, barruan gordetzen zuen hori irteteko ahaleginetan ari balitz bezala.

Zer kristo? Akabo adarjotzeak, pentsatu zuen Jonek, eta maletaren krisketak heldu zituen ezbai hari lehenbailehen amaiera emateko.

Klak!

Krisketak desblokeatu eta kolpera zabaldu zitzaien maletaren tapa, haize batek gora bultzatua bezala.

Salaren erdian geratu zen, zabalik.

Hutsik.

Hutsik zegoen maleta. Eta hustasun horretatik, hari baten moduko kea zabaldu zen salan, airean mugituz, Jonen ileak bat-batean tentetuz, bere gainetik igaroz, eta bihotza, taupadaka sentitzen zuen bihotza dar-dar batean utziz.

Haizearekin batera, beste zerbait igarri zuen Jonek. Bere bizkarraldean zerbait mugitzen zen.

Atzera begiratu zuen, maletatik ihesi zihoan gaudua ikusi nahi izango balu bezala, baina haren orde, Amaiaren gorputz biluziarekin egin zuen topo. Bere atzean zegoen, betiko gorputz ederraz zutik, baina haren begiak urruti zeuden, Galiziako laino artean ezkutatuta gelditu balira bezala.

Hori izan zen Jonen sentitu zuen azkena.

Ile-lehorgailuaren kolpeak burua lehertu aurretik.

—BAINA NOLA NAHI DUZU SINESTE A tipo bat hil eta hiru egunera hilobitik jaiki zela?

Antonek bota zion galdera.

Berriz ere.

Eta apaiza, desesperatzen hasita zegoen ordu-rako.

—Anton! —erantzun zion—. Ba al dakizu zein den bilera hauen helburua?

Antonek irribarretsu begiratu zien gelan zeuden gainerako lagunei. Begi guztiak adi zituen, eta arrandi agertzeko aukera galanta zeukan aurrean.

—Nirea, behintzat, amak bakean uztea! —erantzun zion lotsagabe apaizari, eta lagunen barre-algarak jaso zituen sari moduan—. Edo zuk zer uste duzu, nik sendotza fede kontuagatik egin nahi dudala?

On Blasen pazientzia amaitzen ari zen. Garai batean Anton bezalakoak konfirmazio-taldetik ostikoka

bidaliko zituen, berehala. Baina gaur egun, taldeak bizpahiru lagunekoak ziren, eta gehienen motibazioa hori bera zen, etxekoek bakean uztea. Edo are okerrago, handik urte batzuetara, fanfarrea guztiarekin elizatik ezkondu ahal izateko konfirmatuta egotea. Baina autoritatea mantendu beharra zeukan, nolabait.

—Bada, nik sinesten dut —esan zuen bat-batean Diegok.

Erantzun horrek ezustean harrapatu zuen On Blas. Diegok sinetsi? Zertan? Taldeko okerrera zen-eta!

—Hildakoak altxa daitezkeela sinesten duk? —galdetu zion Antonek—. Jesukristo hil eta hiru egunera paseoan hasi zela? Ez adarrik jo!

—Ez, hori ez! —erantzun zion Diegok azkar. Apai-zetxeko sukaldean berarekin zeuden beste hiru lagunei begiratu zien. Anton, bere gazte aurpegiarekin, irribarretsu zegoen; Miguel, beti bezala, isilik, besteen eztabaidak jarraituz; eta apaizak bere zahartzaroa inoiz baino nabarmenago erakusten zuen, ostiral gauero gazte koadrila hura konfirmatzeko egin beharreko ahaleginak itsasoak haitza gastatzen duen moduan bera ere gastatuko balu bezala. Hirurak zeuden Diegoren hitzen zain.

—Baina ez dut uste hil ondoren zeru edo Infernu bat dugunik zain —jarraitu zuen—. Hor daude, gainera, mamu eta agerpenak. Horietan sinesten dut nik. Ez ote zen Jesukristoren kontu hori ere mamu baten agerpena izango?